

**“BILBAO BIZKAIA KUTXA BANKU FUNDAZIOA”REN GOBERNU KORPORATIBOAREN  
URTEKO TXOSTENA, 2018. URTEA**

**BANKU-FUNDAZIOAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK**

ERREFERENTZIAKO EKITALDIAREN AMAIERA-DATA

I.F.K.

Deitura:

BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDACIÓN BANCARIA-BILBAO BIZKAIA KUTXA BANKU FUNDAZIOA

Helbidea:

KALE NAGUSIA, 19-21  
48001-BILBO

Babeslaritza zertzen duen erakunde edo organoa:

EUSKADIKO FUNDAZIOEN BABESLARITZA  
GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA  
EUSKO JAURLARITZA

## BANKU-FUNDAZIOEN GOBERNU KORPORATIBOAREN URTEKO TXOSTENA

A. GOBERNU-ORGANOEN EGITURA, OSAERA ETA FUNTZIONAMENDUA.

### A.1 Dauden organoak eta eskumenak.

A.1.1. Adieraz itzazu banku-fundazioan dauden organoak eta horien legezko edo estatutuzko jatorria:

Organoa	Legezko/estatutuzko jatorria
Patronatua	Legezkoa
Lehendakaria	Legezkoa
Zuzendari Nagusia	Legezkoa
Izendapen Batzordea	Estatutuzkoa
Gizarte Ekintza Batzordea	Estatutuzkoa
Inbertsio Batzordea	Estatutuzkoa
Auditoria eta Araudia Betetzeko Batzordea	Legezkoa

A.1.2. Deskriba itzazu banku-fundazioko organoen eskumenak eta funtzioak, delegatu ezin direnak, baita ere beste pertsona edo organo batzuen esku lagatako eskumenak eta funtzioak, eta ahalorde-mateak. Osa itzazu ondorengo taulak:

Delegatu ezinezko eskumen edo funtzioa	
Organoa	Delegatu ezinezko eskumen edo funtzioa
Patronatua	Urteko Kontuak, Aurrekontua eta ohiko kudeaketa gainditzen duten edo Babeslaritzaren baimena behar duten egintzak onartzea.
Auditoria eta Araudia Betetzeko Batzordea	Hala dagokionean, (auditorearekin) auditoriaz bestelako eta debekatu bako zerbitzuen kontratazioa baimentzea, betiere (EB) 537/2014 Erregelamenduak, apirilaren 16koak, 5. artikuluan, 4. atalean, eta 6.2.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, eta 22/2015 Legeak, uztailaren 20koak, Kontu Auditoriarenak, independentzia-araubideari buruz, baita kontu-auditoriako legerian eta auditoria-arauetan ezarritako beste jakinarazpenetan ere, ezarritakoaren arabera.

Delega daitekeen eskumen edo funtzioa		
Organoa	Delega daitekeen eskumen edo funtzioa	Zein organo edo pertsonaren esku utzi den
Patronatua	<p>a) Patronatuaren, baita bera buru duten batzorde betearazle edo/eta aholku-batzordeen, bilkurak deitu eta horien buru izan, eguneko gai-zerrendak ezarri, eztabaidak zuzendu eta aktak ontzat eman.</p> <p>b) Banku Fundazioaren izenean sinatzea eta Patronatuaren eta, hala badagokio, Batzordeen erabakiak egikaritzea, horietan ez bada besterik xedatzen.</p> <p>c) Banku Fundazioa behartzen duten edo berari eragiten dioten legez-xedapenak bete daitezen zaintzea, baita Estatutuetan eta, hala badagokio, horiek garatzeko Araudietan xedatutakoa ere.</p> <p>d) Patronatuaren eta, hala badagokio, Batzordeen erabakiak bete eta betearaztea.</p> <p>e) Bera buru duten Gobernu Organoen erabakien ziurtagiriak ontzat ematea.</p> <p>f) Banku Fundazioaren kudeaketa-araubideari eta jarduera propioari eragiten dieten aktak eta ahalordeak baimentzea.</p> <p>g) Salbuespen gisa, ezusteko kasuetan agertzen eta premiazko konponbidea eskatzen duten gaiak erabaki ahal izango ditu, horren berri Patronatuari emanez, honek egiten duen lehen bileran. Kasu hauetan Patronatuak, nahiz eta hartutako erabakiak hartzen den unetik izan ondorioak, dagokion botazio bidez berretsi beharko du eta, berresten ez bada, inolako eragin eta balio barik geratuko da botazio horretatik aurrera.</p> <p>h) Era guztietako jurisdikzio-jardunak zertzea, eremu zibil, merkataritza, zerga, lan, administrazio, administrazioarekiko auzi, zigor edo beste</p>	Lehendakaria

	<p>eremu batekoak izan, inolako murrizketa barik, bai jurisdikzioari dagokionean eta bai Banku Fundazioari dagokion ekintza-motari dagokionean; eta bere ordezkaritza zertu auzia jartzen diotenean, baita onartu edo atzera egin eta guztiei buruzko erabakia zuzenbideko edo ekitatezko arbitraje pean jarri ere.</p> <p>i) Patronatuak bere esku lagatzen dituen gainerako eskudantziak, kudeaketakoak edo erakunde-ordezkaritzakoak izan.</p>	
Patronatua	<p>a) Patronatuak eta Batzorde Iraunkorrak hartutako erabakiak egikaritzea.</p> <p>b) Banku Fundazioan dauden zerbitzuak zuzentzea, bere helburuak hobekien lortzeko beharrezkoak diren antolaketa-funtzioak betez.</p> <p>c) Banku Fundazioaren helburuen arabera, proiektuak, azterlanak eta zerbitzuak kontratatzea, dagozkien arauetan erabakitzen diren baldintzetan.</p> <p>d) Banku Fundazioak ekitaldi ekonomiko bakoitzean egin ditzakeen jarduera-programak, onartu ostean, prestatu, proposatu eta zuzentzea.</p> <p>e) Patronatuari edo, hala badagokio, Batzorde Iraunkorrari aurkeztea, onespena emateko, Banku Fundazioaren instalazio, zerbitzu edo jarduera berriei buruzko proiektu guztiak, baita lehendik daudenen handiagotzea edo berritzea ere.</p> <p>f) Idatzi eta Patronatuari edo, hala badagokio, Batzorde Iraunkorrari proposatzea egokitzen jotzen diren lankidetz-, laguntza- eta erosketa-kontratuen egitea.</p> <p>g) Jarduera edo zerbitzu guztietako kontabilitate orokorra eta lagungarria antolatzea, baita kobrantza eta ordainketen mekanika ere.</p> <p>h) Patronatuari edo, hala badagokio, Batzorde Iraunkorrari proposatzea Banku Fundazioarekin harremana duten pertsonen izendapenak eta ordainsariak, beraiekin egiteko kontratuak, baita horien bereizketa, eta jardueren eta lan-araubidearen antolaketa ere.</p> <p>i) Banku-jardueren eremuan, honako hauek egin ahal izango ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontu korrante eta aurrezki-kontuak ireki, jarraitu eta erabiltzea, eta eperako ezarpenak egin eta erabiltzea, txeki, transferentzia-agindu edo ordainagiriaren bidez. Ordainketak agintzea eta Banku Fundazioaren kontuak erabiltzea.</li> <li>- Erakundeak aitorturiko finantza-inbertsioak egitea edozein motatako finantza-aktibo, ordainduko, kutzako bonu, gordailu-ziurtagiri edo errenta finkoko beste antzeko batzuetan, baita Estatuaren edo Autonomia Erkidegoen, Foru Aldundien eta Tokiko Korporazioen Zorra jaulkitzeko tituluetan ere.</li> <li>- Gordailuak egin eta erretiratzea, endosatu edo lagatzea, egindako inbertsio guztiak eta horien interesak eta aurrerakinak kobratu eta erabiltzea.</li> <li>- Aipaturiko kontu eta ezarpen, efektu eta finantza-aktibo horien saldo eta likidazioei adostasuna ematea.</li> <li>- Banku-erakundeei beharrezko abalak eskatzea erakunde publiko edo pribatuekiko konkurtsoetarako, eta eragiketa horretarako beharrezkoak diren bermeak ematea banku-erakundeen aurrean, horretarako behar diren agiri publiko edo pribatu guztiak izenpetuz.</li> </ul> <p>j) Onespena jasotzeko, Banku Fundazioaren aurrekontuak prestatu eta idaztea, bai aurrekontu orokorrak eta bai edozein zerbitzu edo jardueraren partikularrak.</p> <p>k) Banku Fundazioaren izenean sinatzea bera izendatzerakoan ahaldunduriko egintza edo negozio juridiko guztietan, indarrean dagoen araudiari lotuta betiere.</p> <p>l) Lehendakariak delegatuta, Banku Fundazioaren ordezkari izatea epaiketan eta handik kanpo, botere publikoekiko, erakunde, korporazio eta edozein mailatako pertsona juridiko edo fisikoekiko harreman guztietan. Ahalorde orokorrak eman ahal izango ditu auzietarako.</p> <p>m) Banku Fundazioari dagozkion kopuruak jaso eta kobratzea, edozein titulurengatik, bereziki edozein erakunde publiko edo pribatuk emandako diru-laguntza edo ekarpenak.</p>	Zuzendari Nagusia

	<p>n) Halaber, zuzendari nagusiak ahalmena izango du era guztietako kontratuak eta hitzarmenak izenpetzeko Banku Fundazioaren helburuen arabera Herri Administrazioekin, Estatuko, Autonomia Erkidegoetako, Tokiko, Udalerriko nahiz Europako Erkidegokoak izan.</p> <p>o) Aplika daitekeen araudiaren arabera, bere izendapena formalizatzerakoan ematen zaizkion gainerako ahalmen guztiak.</p>	
Patronatua	<p>a) Patronatua informatzea patronatu-kideentzako eta, hala badagokio, Banku Fundazioaren goi-zuzendaritzakoentzako dieten edo/eta, hala badagokio, ordainsarien politika orokorrak</p> <p>b) Patronatuari patronatu-kideen izendapena proposatzea, une bakoitzean Patronatua osatzen dutenetarikoren batek kargua uzteagatik, zeinahi dela ere horretarako arrazoa.</p> <p>c) Patronatu-kide kargua betetzeko legez eta estatutuz ezarritako eskakizunak betetzen direla bermatzea, baita ere, hala badagokio, Banku Fundazioaren zuzendari edo zuzendari nagusiaren kargurako ere.</p> <p>d) Ordainsarien inguruko gardentasuna zaintzea eta ondorio horietarako garrantzitsua den edozein argibide Patronatuari ematea.</p> <p>e) Patronatuko kideek edo Lurralde Historikoko erakunde publiko edo pribatuek bidalitako informazioa aztertzea honako hauei buruz: (i) ohoragarritasun komertzialaren eta profesionalaren betebeharrak, baita esperientzia eta gobernu onari buruzkoak ere, legez eta estatutuz eskatzen direnak; (ii) bateraezintasunen araubidea, Estatuetan eta aplikagarria den legerian ezarritakoa; (iii) oro har, kargua betetzeko, legez edo estatutuz, eska daitekeen beste edozein betebeharrak; eta (iv) gainerako betebeharrak profesionalak, baita ere, hala badagokio, zuzeneko edo zeharkako gatazka-egoerak, Banku Fundazioaren interesekin eta bere gizarte-funtzioa betetzearekin izan ditzaketenak.</p> <p>f) Funtzionamendu-araubidea dagokion Erregelamenduan ezarriko da, eta hau Patronatuak onetsi beharko du.</p>	Izendapen Batzordea
Patronatua	<p>a) Patronatuari aholku ematea gizarte-gaietan.</p> <p>b) Gizarte Ekintzaren ildo nagusiei buruzko proposamenak egin eta Patronatuari aurkeztea.</p> <p>c) Gizarte Ekintzaren aurrekontuak aztertzea eta horien betetzeaz Patronatua informatzea.</p> <p>d) Bere izaerari dagozkion beste batzuk, indarrean dagoen araudiak edo Patronatuak esleitzen dizkionak, baita aipaturiko Gobernu Organoari bidezko iruditzen zaion edozein txosten egitea ere.</p>	Gizarte Ekintza Batzordea
Patronatua	Inbertsio Batzordearen eginkizuna da Banku Fundazioak zuzenean edo bere talde bereko erakunde bidez egiten dituen inbertsio eta desinbertsio estrategiko eta egonkorrei buruz Patronatua informatzea, baita inbertsio horien finantza-bideragarritasunaz ere, eta ea Fundazioaren aurrekontu eta plan estrategikoetara egokitzen diren.	Inbertsio Batzordea
Patronatua	<p>a) Patronatua informatzea bere barruan, bakoitzari dagozkion eskumenetan, planteatzen diren gaii buruz.</p> <p>b) Patronatuari kanpoko kontu-ikuskarien izendapena proposatzea, aplikagarria den araudiaren arabera.</p> <p>c) Banku Fundazioaren eta, hala badagokio, bere taldearen informazio-prozesuez eta barruko kontrol-sistemez arduratzea.</p> <p>d) Kanpoko kontu-auditoreekin beharrezko harremanak ezartzea beraien independentzia arriskuan jar dezaketen gaii buruz argibideak jasotzeko, baita kontu-auditoriaren garapen-prozesuari loturiko beste edozeinez ere; eta kontu-auditoriaren legerian eta auditoriako arau teknikoetan ezarritako beste komunikazioak ere.</p>	Auditoria eta Araudia Betetzeko Batzordea

## A.2 Patronatuaren egitura, osaera eta funtzionamendua.

### A.2.1 Adierazi ea patronatuak baduen erregelamendurik eta emazu horren aldaketen berri:

<b>Erregelamendua (BAI/EZ, onarpen-data)</b>	<b>Aldaketa (BAI/EZ, aldaketaren data)</b>	<b>Non dagoen kontsultatzeko</b>
BAI, 2015/11/26an onartua	EZ	Intranet (Patronatuaren ataria)

A.2.2 Adierazi patronatu-kideen kopurua eta justifikatu horren proportzionaltasuna aktibo-bolumenari dagokionez:

<b>Patronatu-kideak guztira</b>	15
<b>Fundazioaren aktibo-kopurua</b>	3.054.034,25 €
<b>Patronatu-kideen kopuru/Aktiboen kopuru proportzioa</b>	203.602,28 € patronatu-kideko

<b>Proportzionaltasunaren justifikazioa aktibo-kopuruari dagokionez</b>
Aktiboen kopuruak 15 patronatu-kide egotea justifikatzen du

A.2.3 Identifikatu patronatu-kideak eta zehaztu zein taldetakoak diren:

<b>Patronatu-kideen nortasuna</b>			
<b>Patronatu-kidearen izena</b>	<b>IFZ edo IFK</b>	<b>Hala badagokio, bere ordezkari den pertsona fisikoa</b>	<b>Izendapenaren data</b>
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	P4800000D	GARCÍA ERAUZKIN, Alberto	2014/06/30
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	P4800000D	URTASUN ZABALO, Javier	2018/04/26
BILBOKO UDALA	P-4802400D	ORTUONDO LARREA, Begoña	2014/06/30
ARDANZA FRESNO, Manuel	14938010-Q		2014/06/30
BERASATEGI ZABALA, Jon	30666630-V		2014/06/30
CALVO SOTOMAYOR, Iñigo	78894888-N		2014/11/25
GARAGALZA MUÑOZ, Paula	24407818-B		2014/06/30
LÓPEZ de LARRUZZA ZARATE, Amagoia	14930104-E		2014/06/30
MARTINEZ RUIZ, Fidel	72390699-Q		2018/02/01
PULGARIN ROMERO, José Miguel	22713606-W		2014/06/30
SAGREDO ORMAZA, Xabier	30653715-M		2014/06/30
URKIJO ELORRIAGA, Ana	14912260-A		2014/06/30
ZARATE AMIGORENA, Roberto	11907371-H		2014/06/30

	<b>Patronatuaren osaera patronatu-kideei dagokien taldearen arabera</b>	
	<b>Patronatu-kideak guztira</b>	<b>Gutzizkoari buruz %</b>
<b>Sortzaileak</b>	3	% 20,00
<b>Interes kolektiboen ordezkari diren erakundeak</b>	1	% 6,66
<b>Baliabideen ekarpen esanguratsua egin duten pertsonak</b>	0	% 0,00
<b>Pertsona independenteak, ospe nabarmenekoak</b>	3	% 20,00
<b>Finantza-gaietan ezagutza eta eskarmentu berezia duten pertsonak</b>	8	% 53,33
<b>Gutzizkoak</b>	<b>15</b>	<b>% 100,00</b>

A.2.4 Justifikatu patronatu-kide bakoitza zergatik den dagokion taldekoa:

<b>Kide izatearen justifikazioa</b>		
<b>Patronatu-kidearen izena edo deitura</b>	<b>Dagokion taldea</b>	<b>Taldekoa izatearen justifikazioa</b>
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	Sortzailea	BBK Banku Fundazioak Bizkaiko Aurrezki Kutxa Probintzialaren eta Bilboko Udal Aurrezki Kutxaren bat-egitez sorturiko Aurrezki Kutxan du jatorria.
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	Sortzailea	BBK Banku Fundazioak Bizkaiko Aurrezki Kutxa Probintzialaren eta Bilboko Udal Aurrezki Kutxaren

		bat-egitez sorturiko Aurrezki Kutxan du jatorria.
BILBOKO UDALA	Sortzailea	BBK Banku Fundazioak Bizkaiko Aurrezki Kutxa Probintzialaren eta Bilboko Udal Aurrezki Kutxaren bat-egitez sorturiko Aurrezki Kutxan du jatorria.
ARDANZA FRESNO, Manuel	Finantza-aditua	Bilboko Burtsako lehendakaria da.
BERASATEGI ZABALA, Jon	Finantza-aditua	Athletic Club-eko zuzendari nagusia da.
CALVO SOTOMAYOR, Iñigo	Finantza-aditua	Deusto Business School-eko irakaslea da, Deustuko Unibertsitatean.
GARAGALZA MUÑOZ, Paula	Finantza aditua	Barclays Bank-eko bulego-zuzendaria izan zen Bilbon (Indautxu).
LÓPEZ de LARRUZEA ZARATE, Amagoia	Gizarte Ekintzan aditua	Irakaslea da. "Bakearen Arbola"-Gernikako Gesto por la Paz-eko lehendakaria izan da eta DOSANBIZ - Bizkaiko Odol-emaileen Elkarteko idazkaria da.
MARTINEZ RUIZ, Fidel	Gizarte Ekintzan aditua	Bizkaiko Foru Administrazioako Letradua da, Gizarte Ekintzako Sailera adskribatua duela 20 urte baino gehiagotik.
PULGARIN ROMERO, José Miguel	GAE (ERI): Kolektiboak	APNABI-Autismo Bizkaiko lehendakaria da, eta FEVAS-Adimen Urritasuna dutenen Elkartearen Euskal Federazioko idazkaria.
SAGREDO ORMAZA, Xabier	Finantza-aditua	Bere lanbide-ibilbide osoa enpresa pribatuan egin du: IPAR KUTXAn (gaur egun Laboral Kutxa), Barne Auditoria arloan eta Hedapeneko zuzendari gisa (1997-2008). Eta TRANSITIAko zuzendari nagusi gisa (2008-2013). BBK Aurrezki Kutxako lehendakaria eta lehendakariordea ere izan da, Iberdrola Generación-eko kontseilaria eta Auditoria eta Betetze Batzordeko kidea, eta Iberdrola Distribución-eko kontseilaria eta Auditoria eta Araudia Betetze Batzordeko lehendakaria. Bilboko Portu Agintaritzako kontseilaria ere izan da. Gaur egun IBERDROLA S.A.ko kontseilaria da (Taldeko sozietate burua). Eta BBKren Gizarte Ekintzari loturiko beste kargu batzuk ditu, adibidez Arte Ederren eta Guggenheim museoetako patronatu-kidea baita Eragintza Fundazioko lehendakaria ere.
URKIJO ELORRIAGA, Ana	Finantza aditua	Oraindik beharrean dabilen abokatua da, eta Athletic Clubeko lehendakari izana.
ZARATE AMIGORENA, Roberto	Finantza-aditua	Enpresa Zientzietan lizentziaduna da eta bere lanbide-jarduera Konkurtsoen arloan egiten du. Gainera, Enpresentzako Aholkularitza Enpresa baten buru da.

A.2.5 Aipatu denboraldi honetan patronatuan izan diren kargu-uzteak:

Izena	Baja-data	Kargu-uztearen arrazoa
BERJÓN AYUSO, Francisco José	2018/02/05	Dimisioa ematea
DE ITURRATE IBARRA, Maite	2018/01/31	Legezko bateraezintasuna

A.2.6 Adieraz ezazu zenbat patronatu-kide diren herri-administrazioen eta zuzenbide publikoko erakunde eta korporazioen ordezkariak, bai termino absolutuetan eta bai patronatu-kide guztien ehuneko gisa:

Herri-administrazioen eta zuzenbide publikoko erakunde eta korporazioen ordezkari diren patronatu-kideak	
Kopurua	3
Guztizkoari buruz %	% 20,00

A.2.7 Sar ezazu abenduaren 27ko 26/2013 Legearen bigarren xedapen iragankorrean ezarritako hipotesian dauden patronatu-kideen zerrenda:

Patronatu-kideen izena	Zein banku-erakundetan duten beren kargua	Banku-erakundeetan beteriko kargua	Abenduaren 27ko 26/2013 Legearen bigarren xedapen iragankorrean xedatutakoan egoteari noiz utziko zaion gutxi gorabehera jota
Ez dago (1)	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio

(1) Banku Fundazioko Estatutu Sozialen 23. artikulua espresuki debekutzen du Patronatuko kideek karguak izatea Kutxabankeko Administrazio Kontseiluan

A.2.8 Adieraz ezazu Patronatuko lehendakariaren —eta, hala badagokio, lehendakariordearen—, zuzendari nagusiaren eta idazkariaren —eta, hala badagokio, idazkariordearen— nortasuna, baita beren lanbide-esperientziaren deskribapen zehaztu eta arrazoitua ere beren funtzioak betetzearen ondorioetarako:

	Badago? BAI/EZ (markatu x batez)		Izena	IFZ edo IFK	Bere lanbide-esperientziaren deskribapena	Karguaren onartze-data
	BAI	EZ				
Lehendakaria	X		SAGREDO ORMAZA, Xabier	30653715-M	Bere lanbide-ibilbide osoa enpresa pribatuan egin du: IPAR KUTXAn (gaur egun Laboral Kutxa), Barne Auditoria arloan eta Hedapeneko zuzendari gisa (1997-2008). Eta TRANSITIAko zuzendari nagusi gisa (2008-2013). BBK Aurrezki Kutxako lehendakaria eta lehendakariordea ere izan da, Iberdrola Generación-eko kontseilaria eta Auditoria eta Betetze Batzordeko kidea, eta Iberdrola Distribución-eko kontseilaria eta Auditoria eta Araudia Betetzeko Batzordeko lehendakaria. Bilboko Portu Agintaritzako kontseilaria ere izan da. Gaur egun IBERDROLA S.A.ko (Taldeko sozietate buruko) kontseilu-kide independentea da. Gainera, BBKren Gizarte Ekintzari loturiko beste kargu batzuk ditu, adibidez Arte Ederren eta Guggenheim museoetako patronatu-kidea da, baita Eragintza Fundazioko lehendakaria ere.	2014/11/25
Lehendakariordea	X		GARCIA ERAUZKIN, Alberto	16031817-N	EUSKALTEL S.A.ko lehendakaria da eta aurrez PATRICIO ECHEVERRIA S.A. KORPORAZIOKO finantza-zuzendaria, beste kargu batzuen artean.	2014/11/25
Zuzendari Nagusia	X		MARTÍNEZ SALCEDO, Jorge	14899402-W	BBK Aurrezki Kutxari lotua egon da hasieratik, eta hainbat ardura-kargu izan ditu bertan.	2014/11/25
Idazkaria	X		ALDAZABAL ETXEBARRIA, Javier	30572858-Q	Abokatua da, Zuzenbidean doktorea, fundazioen araubide juridikoan aditua. Euskal Herriko Unibertsitatean eta Deustuko Unibertsitatean irakasle izan da, zenbait artikulua eta monografia bat argitaratu ditu fundazioen eta aurrezki-kutxen araubide juridikoaz.	2015/11/26

A.2.9 Adierazi idazkaria patronatu-kidea den edo ez:

Idazkaria	
BAI, patronatu-kidea da	EZ da patronatu-kidea
	X

Idazkariak, patronatu-kidea ez delarik, Batzorde Delegatuetoako idazkari-lanak ere egiten ditu.

A.2.10 Bete ezazu ondorengo informazioa patronatuaren funtzionamenduari buruzko arauak adieraziz:

Funtzionamendu-arauak	
<b>Patronatuaren eraketa</b>	Bilkurak aldi berean hainbat gelatan egin ahal izango dira, betiere ikus-entzunezko edo telefonozko bitartekoen bidez ziurtatzen bada beraien arteko jarduera edo komunikazioa denbora errealean, eta beraz egintza-batasuna. Kasu honetan, deialdian agerraraziko da konexio-sistema, eta, hala badagokio, non dauden bertan parte hartzeko baliabide teknikoak. Erabakiak Lehendakaritza dagoen lekuan hartutzat joko dira.
<b>Asistentzia-quoruma</b>	Patronatua balioz eratuko da bertan aurrez aurre edo ordezkatura kideen erdiak eta bat gehiago daudenean. Deituriko bilerara ez badira etortzen patronatu-kideen erdia baino gehiago, hau bigarren deialdian eratu ahal izango da, lanegun bat igaro eta gero, aurrez deialdi berria eginda gai-zerrenda berberarekin, betiere bertan dauden patronatu-kideak kide guztien heren bat gutxienez baldin badira.
<b>Eguneko gai-zerrenda finkatzea</b>	Lehendakariak egin behar du, deialdian.
<b>Erabakiak hartzeko araubidea</b>	Erabakiak presente edo ordezkatura dauden botoen gehiengoz hartuko dira, Estatutuek edo aplikagarri den araudiak besterik ezartzen duenean izan ezik. Berdinketa-kasuan, lehendakariak edo mahaiburu denak kalitatezko botoa izango du. Kideen bi herenen botoa beharko daATEGITE-erabakiak hartzeko, edo Fundazioaren egiturazko edozein aldaketa egin eta desagertzea erabakitzeke.
<b>Patronatu-kideei eman beharreko informazioa</b>	Bileran eztabaidatuko den guztia.
<b>Patronatu-kideek informazioa eskuratzeko sistemak</b>	Patronatuaren bilerei buruzko informazio guztia bere kideei bidaltzen zaie aldeztatik posta elektronikoz. Halaber, bada Atari bat (intranet), Patronatuko kideek erabil dezaketena, bilera guztietako dokumentu edo agiri guztiak ikusi ahal izateko.

A.2.11 Informatu honako taula honen bidez patronatuaren bileren aldizkakotasun edo deialdi-arauei buruz, baita ere zein kasutan patronatu-kideek eska dezaketen deialdi hori:

Bileren aldizkakotasun eta deialdiari buruzko arauak	
<b>Aldizkakotasuna</b>	Bilera bi hilean behin egiten da gutxi gorabehera, horretarako onarturiko egutegian aurrefinkatuta, eta horietaz gain beharrezko bilera berezi guztiak. Zehazki, 2018. urtean Patronatuaren 6 (sei) bilkura egin ziren.
<b>Deialdia</b>	Lehendakariak deitu behar ditu bilkurak, gutxienez 48 orduko aurrerapenez, kide bakoitzari idatziz jakinarazita, jaso dutela egiaztaturik utziko duen edozein bitarteko edo prozedura, telematikoak barne, erabiliz. Deialdian bileraren lekua, eguna eta ordua adieraziko dira, baita aztertuko den gai-zerrenda ere, eta dagokion dokumentazioa bidaliko da. Premiako kasuetan, lehendakariaren iritzian, deialdiak balioko du zeinahi dela ere bere forma eta epea, betiere behar bezala arazoitzen bada.
<b>Patronatu-kideen eskubidea bileren deialdia eskatzeko</b>	Ez da beharko aldeztatik aurretiko deialdirik patronatu-kide guztiak bertan baldin badaude eta aho batez erabakitzen badute bilera egitea.



A.2.12 Adierazi deitu den bilera-kopurua:

<b>Deitutako bilerak</b>
6

A.2.13 Hala badagokio, informatu patronatuaren erabakiak betetzearen barruko kontrol-sistemei buruz:

<b>Erabakiak betetzearen barruko kontrol-sistemak</b>
Bilera bakoitzeko Akta Idazkariak idazten du eta bertan egoten dira Patronatuak hartutako akordio edo erabaki guztiak. Halaber, idazkariak fitxa bat irekitzen du hartutako erabaki bakoitzeko, eta bertan edukia, erabakia hartu zeneko data, betetzeko dagoen epea eta betetzera behartuta daudenak erregistratzen dira. Idazkariak Patronatuko kide guztiei bidaltzen dizkie fitxak eta gobernu-organo honen hurrengo bilkuran, honek, hala badagokio, aurreko bilkurako akta onartzen du eta aipaturiko erabakien betetzearen jarraipena egiten du.

### **A.3 Beste organo eta batzorde batzuen egitura, osaera eta funtzionamendua.**

#### **BESTE ORGANO EDO BATZORDE BATZUK**

Adierazi, banku-fundazioaren antolaketa-egituraren parte baldin badira bakarrik, gainerako gobernu-organoak edo patronatuari laguntzeko daudenak eta horien osaera:

A.3.1 Batzorde edo organoaren izena: [IZENDAPEN BATZORDEA](#)

A.3.2 Adierazi ea baduen erregelamendurik eta emazu horren aldaketan berri:

<b>Erregelamendua (BAI/EZ, onarpen-data)</b>	<b>Aldaketa (BAI/EZ, aldaketaren data)</b>	<b>Non dagoen kontsultatzeko</b>
<a href="#">BAI, 2014/11/25ean onartua</a>	<a href="#">BAI, 2017/12/21ean onartua</a>	Intranet (Patronatuaren ataria)

A.3.3 Identifikatu bere kideak

Izena	Batzordean duen kargua	Banku-fundazioaren beste organo batzuetan dituen karguak	Ordezkatzen duen taldea
ZARATE AMIGORENA, Roberto	Lehendakaria	Patronatuko kidea Gizarte Ekintza Batzordeko kidea Auditoria eta Araudia Betetzeko Batzordeko kidea	Finantza-aditua
URKIJO ELORRIAGA, Ana	Lehendakariordea	Patronatuko kidea	Finantza aditua
CALVO SOTOMAYOR, Iñigo	Batzorde-kidea	Patronatuko kidea Inbertsio Batzordeko kidea Auditoria eta Araudia Betetzeko Batzordeko kidea	Finantza-aditua
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA (GARCÍA ERAUZKIN, Alberto)	Batzorde-kidea	Patronatuko lehendakariordea Inbertsio Batzordeko kidea	Sortzailea
MARTINEZ RUIZ, Fidel	Batzorde-kidea	Gizarte Ekintza Batzordeko lehendakaria	Gizarte Ekintzan aditua

A.3.4. Adierazi, hala badagokio, ea bere osaeran jasota dagoen kideek patronatuan duten parte-hartzea, bakoitzak ordezkatzen duen taldearen arabera:

Osaeraren azalpena
Patronatuko kide bakoitza bere borondatez sartu da batzordeetan, espezialitate, arrazionaltasun eta bakoitzaren profilari gehien egokitzen zaion gaia hartzeko irizpideei jarraituz, eta guztiek parte har dezaten saiatur.

Ezezko kasuan, azaldu bere osaera-arauak:

Osaera-arauak
Ez dagokio

A.3.5 Deskribatu dagozkion eskumenak eta funtzioak, zehaztu delegatuta betetzen dituen edo ez, eta adierazi bere erabakiek izaera loteslea ala kontsulta-izaera duten:

Bere eskumen eta funtzioak	Delegatutako eskumen eta funtzioak
	<p>Patronatuak delegaturiko funtzioak:</p> <p>a) Patronatua informatzea patronatu-kideentzako eta, hala badagokio, Fundazioaren goi-zuzendaritzakoentzako dieta edo/eta, hala badagokio, ordainsarien politika orokorrak</p> <p>b) Patronatuari patronatu-kideen izendapena proposatzea, une bakoitzean Patronatua osatzen duten etarikoren batek kargua uzteagatik, zeinahi dela ere horretarako arrazoia.</p> <p>c) Patronatu-kide kargua betetzeko legez eta estatutuz ezarritako eskakizunak betetzen direla bermatzea, baita ere, hala badagokio, Fundazioaren zuzendari edo zuzendari nagusiaren kargurako ere.</p> <p>d) Ordainsarien inguruko gardentasuna zaintzea eta ondorio horietarako garrantzitsua den edozein argibide Patronatuari ematea.</p> <p>e) Patronatuko kideek edo Lurralde Historikoko erakunde publiko edo pribatuek bidalitako informazioa aztertzea honako hauei buruz: (i) ohoragarritasun komertzialaren eta profesionalaren betebeharrak, baita esperientzia eta gobernu onari buruzkoak ere, legez eta estatutuz eskatzen direnak; (ii) bateraezintasunen araubidea, Estatutuetan eta aplikagarria den legerian ezarritakoa; (iii) oro har, kargua betetzeko, legez edo estatutuz, eska daitekeen beste edozein betebeharrak; eta (iv) gainerako betebeharrak profesionalak, baita ere, hala badagokio, zuzeneko edo zeharkako gatazka-egoerak, Banku Fundazioaren interesekin eta bere gizarte-funtzioak</p>

	betetzearekin izan ditzaketenak. f) Funtzionamendu-araubidea dagokion Erregelamenduan ezarriko da, eta Patronatuak onetsi beharko du.
--	--

Erabakien izaera	
Lotesleak	
Kontsulta-izaera	X

A.3.6 Bete ezazu ondorengo informazioa bere funtzionamenduari buruzko arauak adieraziz

Funtzionamendu-arauak	
Organoaren eraketa	Kideen gehiengo bertan dagoela.
Asistentzia-quoruma	Kideen erdiak eta bat gehiago bertan daudela.
Eguneko gai-zerrenda finkatzea	Batzordeko lehendakariak egin behar du, deialdian.
Erabakiak hartzeko araubidea	Gehiengo soilez.
Kideei eman beharreko informazioa	Bileran eztabaidatuko den guztia.
Kideek informazioa eskuratzeko sistemak	Bada Atari bat (intranet), Batzordeetako kideek erabil dezaketena, bilera guztietako dokumentu edo agiri guztiak ikusteko.

A.3.7 Informatu beren bileren aldizkakotasun edo deialdi-arauei buruz, baita ere zein kasutan batzorde-kideek eska dezaketen deialdi hori, honako taula honen bidez:

Bileren aldizkakotasun eta deialdiari buruzko arauak	
Aldizkakotasuna	Beharrezkotzat jotzen den beste aldiz, eta gutxienez urtean bi aldiz.
Deialdia	Lehendakariari dagokio.
Kideen eskubidea bileren deialdia eskatzeko	Eskabidea lehendakariari zuzendu behar diote, honek egin dezan deialdia.

A.3.8 Adierazi deituriko bilera-kopurua, eta horien artetik zenbat izan diren kide batek edo gehiagok eskatuta:

	Guztira	Kide batek edo gehiagok eskatuta
Deitutako bilerak	4	

A.3.9 Hala badagokio, eman informazioa akordioak betetzearen barruko kontrol-sistemei buruz:

Erabakiak betetzearen barruko kontrol-sistemak
Bilera bakoitzaren Akta idazkariak (Patronatuko idazkari denak) idazten du eta bertan Batzordeak harturiko erabaki guztiak sartzen dira; Batzordearen hurrengo bilkuran, honek, hala badagokio, aurreko bilkurako akta onartzen du eta aipaturiko erabakiak betetzearen jarraipena egiten du.

A.3.1 Batzorde edo organoaren izena: **GIZARTE EKINTZA BATZORDEA**

A.3.2 Adierazi ea baduen erregelamendurik eta emazu horren aldaketan berri:

Erregelamendua (BAI/EZ, onarpen-data)	Aldaketa (BAI/EZ, aldaketaren data)	Non dagoen kontsultatzeko
BAI, 2014/11/25ean onartua	BAI, 2017/12/21ean onartua	Intranet (Patronatuaren ataria)

A.3.3 Identifikatu bere kideak

Izena	Batzordean duen kargua	Banku-fundazioaren beste organo batzuetan dituen karguak	Ordezkatzen duen taldea
MARTINEZ RUIZ, Fidel	Lehendakaria	Izendapen eta Ordainsarien batzordeko kidea	Gizarte Ekintzan aditua
LÓPEZ de LARRUZZA ZARATE, Amagoia	Batzorde-kidea	Patronatuko kidea	Gizarte Ekintzan aditua
BILBOKO UDALA (ORTUONDO LARREA, Begoña)	Batzorde-kidea	Patronatuko kidea	Sortzailea
PULGARIN ROMERO, José Miguel	Batzorde-kidea	Patronatuko kidea	GAE (ERI): Kolektiboak
ZARATE AMIGORENA, Roberto	Batzorde-kidea	Patronatuko kidea Izendapen Batzorde lehendakaria Auditoria eta Araudia Betetzeko Batzordeko kidea	Finantza-aditua

A.3.4. Adierazi, hala badagokio, ea bere osaeran jasota dagoen kideek patronatuan duten parte-hartzea, bakoitzak ordezkatzen duen taldearen arabera:

Osaeraren azalpena
Patronatuko kide bakoitza bere borondatez sartu da batzordeetan, espezialitate, arrazionaltasun eta bakoitzaren profilari gehien egokitzen zaion gaia hartzeko irizpideei jarraituz, eta guztiek parte har dezaten saiatur.

Ezezko kasuan, azaldu bere osaera-arauak:

Osaera-arauak
Ez dagokio

A.3.5 Deskribatu dagozkion eskumenak eta funtzioak, zehaztu delegatuta betetzen dituen edo ez, eta adierazi bere erabakiek izaera loteslea ala kontsulta-izaera duten:

Bere eskumen eta funtzioak	Delegatutako eskumen eta funtzioak
	Patronatuak delegaturiko funtzioak: a) Patronatuari aholku ematea gizarte-gaietan. b) Gizarte Ekintzaren ildo nagusiei buruzko proposamenak egin eta Patronatuari aurkeztea. c) Gizarte Ekintzaren aurrekontuak aztertzea eta horien betetzeaz Patronatua informatzea. d) Bere izaerari dagozkion beste batzuk, indarrean dagoen araudiak edo Patronatuak egozten dizkionak, baita aipaturiko Gobernu Organoari bidezko iruditzen zaion edozein txosten egitea ere.

Erabakien izaera	
Lotesleak	
Kontsulta-izaera	X

A.3.6 Bete ezazu ondorengo informazioa bere funtzionamenduari buruzko arauak adieraziz

<b>Funtzionamendu-arauak</b>	
<b>Organoaren eraketa</b>	Kideen gehiengo bertan dagoela.
<b>Asistentzia-quoruma</b>	Kideen erdiak eta bat gehiago.
<b>Eguneko gai-zerrenda finkatzea</b>	Batzordeko lehendakariak egin behar du, deialdian.
<b>Erabakiak hartzeko araubidea</b>	Gehiengo soilez.
<b>Kideei eman beharreko informazioa</b>	Bileran eztabaidatuko den guztia.
<b>Kideek informazioa eskuratzeko sistemak</b>	Bada Atari bat (intranet), Batzordeetako kideek erabil dezaketena, bilera guztietako dokumentu edo agiri guztiak ikusteko.

A.3.7 Informatu beren bileren aldizkakotasun edo deialdi-arauei buruz, baita ere zein kasutan batzorde-kideek eska dezaketen deialdi hori, honako taula honen bidez:

<b>Bileren aldizkakotasun eta deialdiari buruzko arauak</b>	
<b>Aldizkakotasuna</b>	Beharrezkotzat jotzen den beste aldiz, eta gutxienez urtean bi aldiz.
<b>Deialdia</b>	Lehendakariari dagokio.
<b>Kideen eskubidea bileren deialdia eskatzeko</b>	Lehendakariarengana jo behar dute, honek egin dezan deialdia.

A.3.8 Adierazi deituriko bilera-kopurua, eta horien artetik zenbat izan diren kide batek edo gehiagok eskatuta:

	<b>Guztira</b>	<b>Kide batek edo gehiagok eskatuta</b>
<b>Deitutako bilerak</b>	4	

A.3.9 Hala badagokio, eman informazioa akordioak betetzearen barruko kontrol-sistemei buruz:

<b>Erabakiak betetzearen barruko kontrol-sistemak</b>
Bilera bakoitzaren Akta idazkariak idazten du eta bertan Batzordeak harturiko erabaki guztiak sartzen dira; Batzordearen hurrengo bilkuran, honek, hala badagokio, aurreko bilkurako akta onartzen du eta aipaturiko erabakiak betetzearen jarraipena egiten du.

A.3.1 Batzorde edo organoaren izena: [INBERTSIO BATZORDEA](#)

A.3.2 Adierazi ea baduen erregelamendurik eta emazu horren aldaketaren berri:

<b>Erregelamendua (BAI/EZ, onarpen-data)</b>	<b>Aldaketa (BAI/EZ, aldaketaren data)</b>	<b>Non dagoen kontsultatzeko</b>
<a href="#">BAI, 2014/11/25ean onartua</a>	<a href="#">BAI, 2017/12/21ean onartua</a>	Intranet (Patronatuaren ataria)

A.3.3 Identifikatu bere kideak

Izena	Batzordean duen kargua	Banku-fundazioaren beste organo batzuetan dituen karguak	Ordezkatzen duen taldea
ARDANZA FRESNO, Manuel	Lehendakaria	Patronatuko kidea Auditoria Batzordeko kidea	Finantza-aditua
BERASATEGI ZABALA, Jon	Batzorde-kidea	Patronatuko kidea Izendapen Batzordeko lehendakarioa Auditoria Batzordeko lehendakaria	Finantza-aditua
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA (URTASUN ZABALO, Javier)	Batzorde-kidea	Patronatuko kidea	Sortzailea
CALVO SOTOMAYOR, Iñigo	Batzorde-kidea	Patronatuko kidea Izendapen Batzordeko kidea Auditoria Batzordeko kidea	Finantza-aditua
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA (GARCÍA ERAUZKIN, Alberto)	Batzorde-kidea	Patronatuko lehendakarioa Izendapen Batzordeko kidea	Sortzailea

A.3.4. Adierazi, hala badagokio, ea bere osaeran jasota dagoen kideek patronatuan duten parte-hartzea, bakoitzak ordezkatzen duen taldearen arabera:

Osaeraren azalpena
Patronatuko kide bakoitza bere borondatez sartu da batzordeetan, espezialitate, arrazionaltasun eta bakoitzaren profilari gehien egokitzen zaion gaia hartzeko irizpideei jarraituz, eta guztiek parte har dezaten saiatuz.

Ezezko kasuan, azaldu bere osaera-arauak:

Osaera-arauak

A.3.5 Deskribatu dagozkion eskumenak eta funtzioak, zehaztu delegatuta betetzen dituen edo ez, eta adierazi bere erabakiek izaera loteslea ala kontsulta-izaera duten:

Bere eskumen eta funtzioak	Delegatutako eskumen eta funtzioak
	Patronatuak delegaturiko funtzioak: Inbertsio Batzordearen eginkizuna da Banku Fundazioak zuzenean edo bere taldeko erakundeen bidez egiten dituen inbertsio eta desinbertsio estrategiko eta egonkorrei buruz Patronatua informatzea, baita inbertsio horien finantza-bideragarritasunaz ere, eta ea Fundazioaren aurrekontu eta plan estrategikoetara egokitzen diren.

Erabakien izaera	
Lotesleak	
Kontsulta-izaera	X

A.3.6 Bete ezazu ondorengo informazioa bere funtzionamenduari buruzko arauak adieraziz

Funtzionamendu-arauak	
Organoaren eraketa	Kideen gehiengo bertan dagoela.
Asistentzia-quoruma	Kideen erdiak eta bat gehiago.
Eguneko gai-zerrenda finkatzea	Batzordeko lehendakariak egin behar du, deialdian.
Erabakiak hartzeko araubidea	Gehiengo soilez.
Kideei eman beharreko informazioa	Bileran eztabaidatuko den guztia.
Kideek informazioa eskuratzeko sistemak	Bada Atari bat (intranet), Batzordeetako kideek erabil dezaketena, bilera guztietako dokumentu edo agiri guztiak ikusteko.

- A.3.7 Informatu beren bileren aldizkakotasun edo deialdi-arauei buruz, baita ere zein kasutan batzorde-kideek eska dezaketen deialdi hori, honako taula honen bidez:

Bileren aldizkakotasun eta deialdiari buruzko arauak	
<b>Aldizkakotasuna</b>	Beharrezkotzat jotzen den beste aldiz, eta gutxienez urtean bi aldiz.
<b>Deialdia</b>	Lehendakariari dagokio.
<b>Kideen eskubidea bileren deialdia eskatzeko</b>	Lehendakariarengana jo behar dute, honek egin dezan deialdia.

- A.3.8 Adierazi deituriko bilera-kopurua, eta horien artean zenbat izan diren kide batek edo gehiagok eskatuta:

	Guztira	Kide batek edo gehiagok eskatuta
<b>Deitutako bilerak</b>	5	

- A.3.9 Hala badagokio, eman informazioa akordioak betetzearen barruko kontrol-sistemei buruz:

Erabakiak betetzearen barruko kontrol-sistemak
Bilera bakoitzaren Akta idazkariak idazten du eta bertan Batzordeak harturiko erabaki guztiak sartzen dira; Batzordearen hurrengo bilkuran, honek, hala badagokio, aurreko bilkurako akta onartzen du eta aipaturiko erabakiak betetzearen jarraipena egiten du.

- A.3.1 Batzorde edo organoaren izena: [AUDITORIA ETA ARAUDIA BETETZEKO BATZORDEA](#)

- A.3.2 Adierazi ea baduen erregelamendurik eta emazu horren aldaketan berri:

Erregelamendua (BAI/EZ, onarpen-data)	Aldaketa (BAI/EZ, aldaketaren data)	Non dagoen kontsultatzeko
BAI, 2014/11/25ean onartua	BAI, 2017/06/22an eta 2017/12/21ean onartuak	Intranet (Patronatuaren ataria)

- A.3.3 Identifikatu bere kideak

Izena	Batzordean duen kargua	Banku-fundazioaren beste organo batzuetan dituen karguak	Ordezkatzen duen taldea
BERASATEGI ZABALA, Jon	Lehendakaria	Patronatuko kidea Izendapen Batzordeko lehendakariordea Inbertsio Batzordeko kidea	Finantza-aditua
ARDANZA FRESNO, Manuel	Batzorde-kidea	Patronatuko kidea Inbertsio Batzordeko lehendakaria	Finantza-aditua
GARAGALZA MUÑOZ, Paula	Batzorde-kidea	Patronatuko kidea	Finantza aditua
CALVO SOTOMAYOR, Iñigo	Batzorde-kidea	Patronatuko kidea Inbertsio Batzordeko kidea Izendapen Batzordeko kidea	Finantza-aditua
ZARATE AMIGORENA, Roberto	Batzorde-kidea	Patronatuko kidea Izendapen Batzorde lehendakaria Gizarte Ekintza Batzordeko kidea	Finantza-aditua

- A.3.4. Adierazi, hala badagokio, ea bere osaeran jasota dagoen kideek patronatuan duten parte-hartzea, bakoitzak ordezkatzan duen taldearen arabera:

Osaeraren azalpena
Patronatuko kide bakoitza bere borondatez sartu da batzordeetan, espezialitate, arrazionaltasun eta bakoitzaren profilari gehien egokitzen zaion gaia hartzeko irizpideei jarraituz, eta guztiak parte har dezaten saiatur.

Ezezko kasuan, azaldu bere osaera-arauak:

Osaera-arauak

- A.3.5 Deskribatu dagozkion eskumenak eta funtzioak, zehaztu delegatuta betetzen dituen edo ez, eta adierazi bere erabakiek izaera loteslea ala kontsulta-izaera duten:

Bere eskumen eta funtzioak	Delegatutako eskumen eta funtzioak
	<p>Patronatuak delegaturiko funtzioak:</p> <p>a) Patronatua informatzea bere barruan, bakoitzari dagozkion eskumenetan, planteatzen diren gaiei buruz.</p> <p>b) Patronatuari kanpoko kontu-auditoreen izendapena proposatzea, aplikagarria den araudiaren arabera.</p> <p>c) Banku Fundazioaren eta, hala badagokio, bere taldearen informazio-prozesuez eta barruko kontrol-sistemez arduratzea.</p> <p>d) Kanpoko Kontu Auditoreekin dagozkion harremanak ezartzea beraien independentzia arriskuan jar dezaketen gaiei buruz informazioa jasotzeko, baita kontu-auditoriaren garapen-prozesuari dagokion beste edozein gairi buruz ere, eta, hala dagokionean auditoriaz bestelako eta debekatu bako zerbitzuen kontratazioa baimentzea (auditorearekin) (EB) 537/2014 Erregelamenduak, apirilaren 16koak, 5 artikuluan, 4 atalean, eta 6.2.b) artikuluan, ezarritakoaren arabera eta 22/2015 Legeak, uztailaren 20koak, Kontu Auditoriarenak, independentzia-araubideari buruz, baita kontu-auditoriako legerian eta auditoria-arauetan ezarritako beste jakinarazpenetan ere.</p>
<b>Erabakien izaera</b>	
<b>Lotesleak</b>	
<b>Kontsulta-izaera</b>	X

- A.3.6 Bete ezazu ondorengo informazioa bere funtzionamenduari buruzko arauak adieraziz

Funtzionamendu-arauak	
<b>Organoaren eraketa</b>	Kideen gehiengo bertan dagoela.
<b>Asistentzia-quoruma</b>	Kideen erdiak eta bat gehiago.
<b>Eguneko gai-zerrenda finkatzea</b>	Batzordeko lehendakariak egin behar du, deialdian.
<b>Erabakiak hartzeko araubidea</b>	Gehiengo soilez.
<b>Kideei eman beharreko informazioa</b>	Bileran eztabaidatuko den guztia.
<b>Kideek informazioa eskuratzeko sistemak</b>	Bada Atari bat (intranet), Batzordeetako kideek erabil dezaketena, bilera guztietako dokumentu edo agiri guztiak ikusteko.



- A.3.7 Informatu beren bileren aldizkakotasun edo deialdi-arauei buruz, baita ere zein kasutan batzorde-kideek eska dezaketen deialdi hori, honako taula honen bidez:

<b>Bileren aldizkakotasun eta deialdiari buruzko arauak</b>	
<b>Aldizkakotasuna</b>	Beharrezkotzat jotzen den beste aldiz, eta gutxienez urtean bi aldiz.
<b>Deialdia</b>	Lehendakariari dagokio.
<b>Kideen eskubidea bileren deialdia eskatzeko</b>	Lehendakariarengana jo behar dute, honek egin dezan deialdia.

- A.3.8 Adierazi deituriko bilera-kopurua, eta horien artetik zenbat izan diren kide batek edo gehiagok eskatuta:

	<b>Guztira</b>	<b>Kide batek edo gehiagok eskatuta</b>
<b>Deitutako bilerak</b>	6	

- A.3.9 Hala badagokio, eman informazioa akordioak betetzearen barruko kontrol-sistemei buruz:

<b>Erabakiak betetzearen barruko kontrol-sistemak</b>
Bilera bakoitzaren Akta idazkariak idazten du eta bertan Batzordeak harturiko erabaki guztiak sartzen dira; Batzordearen hurrengo bilkuran, honek, hala badagokio, aurreko bilkurako akta onartzen du eta aipaturiko erabakiak betetzearen jarraipena egiten du.

## B. IZENDAPEN-POLITIKA ZEHAZTEA.

- B.1 Azaldu ezazu banku-fundazioko gobernu-organoei aplikatu dakiekeen izendapen-politika:

<b>Banku-fundazioko izendapen-politika</b>
<p><u>BBK Banku Fundazioaren Estatutu Sozialen 17. artikulua:</u></p> <p>1. Patronatu-kideak hamabost (15) izango dira. Patronatu-kideak Fundazioaren gizarte-ekintzaren jardueraren eremuan garrantzitsuak diren pertsona fisiko edo juridikoak izango dira, eta artikuluko honetan kuantifikatzen den bezala, ondoren zehaztuko diren gizarte-intereseko taldeetakoak izan beharko dute:</p> <p>A) BBK-ko Erakunde Sortzaileak.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bizkaiko Foru Aldundia.</li> <li>• Bilboko Udala.</li> </ul> <p>B) Fundazioaren jardueraren eremuan interes kolektiboaren ordezkari diren erakundeak.</p> <p>C) Pertsona fisiko independenteak, ospe profesional nabarikoak Banku Fundazioaren helburu sozialak betetzeari dagozkion gaietan edo Banku Fundazioak inbertsio garrantzitsuak dituen sektoreetan, finantza-sektoreaz bestelakoetan.</p> <p>D) Finantza-gaietan ezagupen eta eskarmentu bereziak dituzten pertsona fisikoak (...)</p> <p><u>BBK Banku Fundazioaren Estatutu Sozialen 22. artikulua:</u></p> <p>1.- Patronatu-kideek ohoragarritasun komertzial eta profesionalaren baldintzak bete behar dituzte, legez eta estatutuz aplikagarri zaizkienak.</p> <p>2.- Patronatu-kideek legez eta estatutuz eska dakizkiekeen eginkizunak betetzeko berariazko ezagupenak eta eskarmentua izan behar dituzte.</p> <p>3.- 17. artikuluko C) atalean ezarritako patronatu-kideek (gizarte-ekintzan adituek) goi-mailako tituludunak, aipaturiko gai edo arloetan esperientzia egiaztatua dutenak, izan behar dute.</p> <p>4.- 17. artikuluko D) paragrafoan ezarritako patronatu-kideek (finantza-gaietan adituek) ohoragarritasun, esperientzia eta gobernu oneko baldintzak bete behar dituzte, ondorio hauetarako, administrazio-organoko kideei eta bankuetako kargu baliokideei aplikagarri den legeriak eskaturikoak.</p> <p>5.- Pertsona juridikoek pertsona fisiko baten bidez ordezkaturik egon behar dute Patronatuan.</p>

- B.2 Azaldu itzazu inplementaturiko neurriak eta prozesuak, banku-fundazioaren gobernu-organoetan izendaturiko pertsonak beren funtzioak betetzeko Legeak eskatzen dizkien baldintzak betetzen dituztela ziurtatzeko:

<b>Banku-fundazioaren gobernu-organoetan izendaturiko pertsonak beren funtzioak betetzeko Legeak eskatzen dizkien baldintzak betetzen dituztela ziurtatzeko inplementaturiko neurriak eta prozesuak</b>
<p>Patronatuko kideen funtzioak betetzeko Legeak eskaturiko baldintzen kontrola Izendapen Batzordearena da, batez ere:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Izendapen Batzordeak izendapen-proposamenak aztertuko ditu, gehienez ere 10 egun naturaleko epean, zera egiaztatzeko: izendaturikoek betetzen dituztela beraien izendapenerako eskatzen diren legeko eta estatutuzko baldintzak.</li> <li>2. Erakunde sortzaileek izendaturiko pertsona batek edo gehiagok ez baditu baldintza horiek betetzen, Izendapen Batzordeak Patronatuko lehendakariari jakinaraziko dio, honek dagokion erakundeari beste izendapen bat eska diezaion gehienez 10 egun naturaleko epean, eta Izendapen Batzordeak hori jaso ondoren, atal honetan ezarritako izapideak jarraituko ditu.</li> </ol>

- B.3 Hala badagokio, identifikatu izendapen-politikari loturiko funtzioak betetzeko sortu diren organo edo batzorde bereziak:

<b>Organoak</b>	<b>Funtzioak</b>
Izendapen Batzordea	Proposatutako hautagaiek Legeak eskaturiko baldintzak betetzen dituzten edo ez aztertzea eta Patronatuari proposamen bat helaraztea.
Patronatua	Azken instantzian izendapena erabakitzea edo ez.

## C. INBERTSIO-POLITIKA PARTAIDETURIKO KREDITU-ERAKUNDEAN

- C.1 Azaldu labur zein diren inbertsio-politikaren helburuak kreditu-erakunde partaidetuan eta banku-fundazioak erakunde hartan duen partaidetzaren kudeaketa arautzen duten irizpideak:

<b>Inbertsio-politika partaideturiko kreditu-erakunde</b>
2018an BBK Banku Fundazioak % 57ko partaidetza-kuota mantendu du partaideturiko kreditu-erakunde (Kutxabank), hori izanik bere inbertsio nagusia, dagozkion dibidenduak kobratuz BBKren gizarte-ekintza, iraunkorra eta iraugarria, bermatu ahal izateko. Ez dira proiektatzen beste inbertsio esanguratsu batzuk.

- C.2 Adierazi kreditu-erakunde partaidetuaren akzioak eskuratu eta eskualdatzeko banku-fundazioak egindako eragiketak, edo egindako beste edozein eragiketa banku-fundazioak kreditu-erakunde partaidetuan dituen boto-eskubideak aldatu dituen:

<b>Egindako eragiketa</b>	<b>Boto-eskubideak aldatu diren modua</b>
Banku-fundazioak ez du honelako batera eragiketarik egin 2018an.	

- C.3 Azaldu ezazu banku-fundazioak jarraituriko politika erakunde partaidetuak egindako emaitza-banaketa dagokionez, dibidenduen banaketa eta baliabide propioen gehikuntza barne, eta nola zertu den boto-eskubidea gai hauei buruz:

	<b>Erakunde partaidetua</b>
<b>Dibidendu-banaketa eta emaitzei buruz izandako politika, eta nola erabili den boto-eskubidea.</b>	BBK Banku Fundazioak 2018ko etekinaren % 50eko dibidendua banatzeko proposamenaren alde bozkatu du, Kutxabankeko Administrazio Kontseiluak formulatua.
<b>Baliabide propioen gehikuntzari buruz</b>	Kutxabankek banaturiko dibidenduaren % 57 jaso du BBK Banku Fundazioak, eta

izandako politika, emaitzak eta nola erabili den boto-eskubidea.	bere Gizarte Ekintza gauzatzera eta Nahitaezko Erreserba Funtsa hornitzera eta beste erreserba batzuetara bideratu du.
--	--

- C.4 Azaldu ezazu banku-fundazioaren akordio-politika kreditu-erakunde partaideturiko beste akziodun batzuekin.

<b>Banku-fundazioaren akordio-politika kreditu-erakunde partaideturiko beste akziodun batzuekin</b>
Ez dago BBK banku-fundazioaren akordio-politikarik Kutxabaneko beste inolako akziodunekin. Erakunde-zko Babes Sistema (SIP), 2011ko ekainaren 30ean Kutxabank sortarazi zuena, iraungi egin zen aurrezki-kutxak banku-fundazio bihurtu zirelako eta hauek finantza-erakunde izaera galdu zutelako. Bereziki, BBK banku-fundazio bihurtu zen Aurrezki Kutxaren Batzar Nagusiak 2014ko ekainaren 30ean hartutako erabakiz. Are gehiago, BBK eta VITAL banku-fundazioek, Kutxabank bankuarekin batera, SIPen "Amaiera Dokumentua" izenpetu zuten 2015eko martxoaren 24an eta Kutxa Fundazioak bat egin zuen iraungitze-dokumentu horrekin, bere Patronatuak 2016ko martxoaren 17an berariaz hartutako erabakiaren bidez.

- C.5 Azaldu itzazu hirugarrengoekin egindako akordioak, zeintzuek, dauzkan boto-eskubideen egikaritze hitzartuaren bidez, politika komun iraunkorra hartzera behartzen duten kreditu-erakunde partaidetuaren kudeaketari dagokionez edo bertan eragin garrantzitsua izateko xedea duten:

<b>Hartutako akordioa</b>	<b>Zein erakunderekin sinatu den akordioa</b>	<b>Akordioaren edukia boto-eskubidearen egikaritze hitzartuaren aipamenaz</b>
Ez dago inolako akordiorik hirugarrengoekin.	Inorekin ez	Ez dago akordiorik

D. **BESTE INBERTSIO BATZUK: JARDUKETAK ETA JARRAITURIKO POLITIKA**

- D.1 Azaldu ezazu zein den jarraituriko inbertsio-politika, zelan aplikatu den eta horren emaitzak kreditu-erakunde partaidetuaz bestelako sozietateetako bakoitzean, zehaztuz gainera ea erabili den boto-eskubidea sozietateen batzar nagusietan eta, kasu horretan, zein norabidetan eman den:

	<b>Inbertsio-politika</b>	<b>Boto-eskubidearen egikaritzea eta norabidea</b>	<b>Portaeraren azalpena</b>
<b>[Sozietate izena 1]</b>	2018an ez dago beste inbertsiorik enpresa partaidetuetan.	Ez dagokio	Ez dagokio
<b>[Sozietate izena 2]</b>	2018an ez dago beste inbertsiorik enpresa partaidetuetan.	Ez dagokio	Ez dagokio

- D.2 Azaldu zein diren enpresa-partaidetzak eskuratzeko, besterentzeko eta beste xedapen-egintza batzuetarako eskumena esleituta duten organoak, hala badagokio:

<b>Enpresa-partaidetzei buruz erabakitze eskumena duten organoak</b>
Ez dago inbertsiorik beste enpresa partaidetu batzuetan, Kutxabanketik kanpo. Baina egongo balira, Inbertsio Batzordea izango litzateke eskuduna informatzeko eta aholku emateko, eta Patronatua izango litzateke eskuduna arlo honetan behin betiko erabakiak hartzeko.

- D.3 Azaldu itzazu sozietate partaidetuen akzioak eskuratzeko eta eskualdatzeko eragiketak:

<b>Egindako eragiketa</b>
Ez da honelako batere eragiketarik egin 2018an

- D.4 Azaldu ezazu banku-fundazioak mantendutako politika erakunde partaidetuen emaitza-banaketari dagokionez, dibidenduen banaketa eta baliabide propioen gehikuntza barne, eta, hala badagokio, zelan zertu den boto-eskubidea gai hauei buruz:

	<b>Emaitzak banatzeko politika</b>	<b>Boto-eskubidea erabiltzea</b>
<b>1 sozietatea</b>	Ez dagokio	Ez dagokio
<b>2 sozietatea</b>	Ez dagokio	Ez dagokio

## E. BANKU-FUNDAZIOAREN ORDAINSARIEN ETA GASTU ORDAINDUEN POLITIKA

### E.1. Beren funtzioak betetzerakoan eragindako zordunketengatik patronatu-kideei ordaindutako gastuen xehetasuna.

- E.1.1. Azaldu ezazu laburki zein den kargua betetzearen ondoriozko gastuak patronatu-kideei ordaintzeko politika, ordainketarako arauak eta baldintzak seinalatuz, ordaingarriztat jotzen diren gastuak, ordainketak egiteko erabiltzen diren ordainbideak, banku-fundazioak ezarritako gehienezko mugak eta horiek onartzeko prozedura eta organo eskudunak:

<b>Patronatu-kideei gastuak ordaintzeko politika</b>
